


UDAL BATZARRAK
ONARTUA

2016 EKU: 13

APROBADO
POR EL PLENO MUNICIPAL

IV BERDINTASUN PLANA EIBARKO UDALA 2016-2019





AURKIBIDEA

SARRERA	3. orr
LEGE ESPARRUA	3. orr
PRINTZIPIO GIDARIAK.....	7. orr
EGITURAK	10. orr
METODOLOGIA	12. orr
III. PLANAREN EBALUAZIOAREN EMAITZA NAGUSIAK	13. orr
IV. BERDINTASUN PLANA: EGITURA ETA JARRAIBIDEAK.....	17. orr
PLANA BULTZATZEKO ETA KOORDINATZEKO EGITURAK.....	35. orr
EBALUAZIOA.....	38. orr



SARRERA

2010. urtean Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren ekimenarekin, Eibarren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana landu zen, 2011ko apirilean onartu zen eta bere iraunaldia 4 urtetakoa izan zen.

Plan honek, berdintasunari dagokionez udalaren ibilbideari eta konpromisoari jarraipena ematen zion; horretarako bost jarduera arlo ezarri ziren: Tokiko Administrazioa, Kultura, Gizarte Partaidetza, Euskara eta Hezkuntza Sailak, Jarduera Ekonomikoa, Gizarte Zerbitzuak eta Hiri-plangintza.

2015. urtean, Planaren iraunaldia amaituta, Eibarko Udala erronka berri baten aurrean aurkitzen da: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana ebaluatu, planteatutako ekintzen betetze maila, hiritarrengan izan duen eragina eta Eibarren berdintasunerantz egin beharreko lanaren etorkizunerako proposatu behar diren hobekuntzak ezagutzeko.

Honela, dokumentu honen bidez 2016an martxan jarriko den eta 4 urteko iraunaldia edukiko duen laugarren berdintasun plana aurkezten da: hirugarren planetik lortutako emaitzetan, eta hiritarren parte-hartzean eta engeiatutako gainontzeko eragileetan oinarrituta egin den plan bat.

LEGE-ESPARRUA

Azken urteetan, hainbat lege eta arau juridiko argitaratu dira, bai nazioarte mailan, baita Estatu mailan edo Autonomi Erkidego mailan ere. Lege hauen guztien helburua, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuneko eskubidearen aitortzea, eta horren aldeko urratsen nondik norakoa zehaztea da. Hala, esan genezake lege esparru zabal baten estalpean kokatzen dela honako plan hau.

Jarraian zehazten direnak lirakeke lege-arloan berdintasun politiken gainean gaur egun dauzkagun baliabide legal garrantzitsuenak.

2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren ingurukoa

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta gizonen arteko Berdintasunaren ingurukoa

EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VI. plana

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako II. Foru Plana (2012-2020)

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako babes neurri osoen gainekoa

2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

17. artikuluan adierazten denez, Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: Kirola, kultura, Gizarte-Zerbitzuak, Ingurumena, Hirigintza, Euskera.....

Hala, testuinguru honi jarraiki, 27. Atalean Tokiko Administrazioaren inguruko aipamena oso argia da eta udalek Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzeko legez duten ahalmena aditzera ematen du.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren ingurukoa.

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak dioenez, berdintasuna printzipio unibertsala da, giza eskubideen gaineko hainbat nazioarteko testutan aitortua dena. Legearen xedea da tratu- eta aukera- berdintasunaren eskubidea eraginkor egitea emakumeen eta gizonen artean, batez ere, bereizkeria ezabatuz, emakumearen inguruabarrak eta egoera gorabehera, bizitzako edozein esparrutan, eta, bereziki, politika-, lan-ekonomia-, gizarte-, nahiz kultura esparruetan eta esparru zibilean, Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikulua garatuz, gizarte demokratikoago, zuzenago eta solidarioagoa lortzeko.

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

Ondorio horietarako, legeak botere publikoen jardute printzipioak ezarri ditu, pertsona fisiko eta juridikoen eskubide eta eginbeharrak arautu ditu, azken horiek publikoak edo pribatuak diren kontuan hartu gabe, eta sektore publiko eta pribatuetan sexuan oinarritutako bereizkeria era guztiak ezabatu eta zuzentzeko neurriak jaso.

Lege bereko **21.2 artikuluan** aipatzen denez, *“toki erakundeek berdintasun eskubidea barneratuko dute euren eskumenak gauzatzean eta horretarako, elkarlanean arituko dira gainerako administrazio publikoekin”*.

4/2005 Legea, Otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunaren ingurukoa

4/2005 legean, Euskal Autonomi Erkidegoko administrazio-maila bakoitzean ezarri beharreko emakume eta gizonen berdintasun-arloko eginkizunak ebazten dira, administrazioaren maila guztietan berdintasun printzipioa txertatzeko asmoz, eta berdintasun politika eraginkorrak sustatu asmoz. Eginkizun hauen ezarpena, hainbat arauen kompetentziak garatzen dator. Hala nola, autonomia-estatutuko 10.39 artikulua, Lurralde Historikoen Legearen 2), 6) eta 7) artikulua, Espainiar konstituzioko 9.2 artikulua eta Europar batasuneko hitzarmenaren 3.02 artikulua. Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako legeak, honako eginkizunak ezartzen dizkie tokiko administrazioei, legearen **7. Artikuluan**:

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

- a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.*
- b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.*
- c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlearitzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.*
- d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.*
- e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.*
- f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.*

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

g) Toki-araudia nolako den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela eta udal mailan eman beharrekoak direnean.

j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

EAEko Emakume eta gizonen berdintasunerako VI. Plana

EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VI. Planak euskal erakunde publikoek emakume eta gizonen arteko berdintasun kontuetan sustatu behar dituzten lan-ildoak ezartzen ditu, benetako berdintasunean aurreratzea lortzeko helburuari jarraituz, arlo ekonomikoan, kulturean, gizarte-bizitzan eta bizitza politikoaren esparru guztietan.

Plan honek bi zutabe nagusi biltzen ditu: alde batetik Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun- gobernantza hobetzeko neurriak, eta bestetik hiru ardatzen baitan egituraturatuko programa multzoa.

Honakoak lirateke aipaturiko **hiru ardatzak** eta bakoitzaren baitan proposaturiko programak:

I. Ardatza: Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea

1. Programa: Balioak aldatzea



IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

2. Programa: Ahalduntze pertsonala laguntzea

3. Programa: Ahalduntze kolektiboa laguntzea

4. Programa: Ahalduntze soziala eta politikoa laguntzea

II. Ardatza: Antolakuntza erantzunkidea

5. Programa: Erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berriak

6. Programa: Kontziliazio erantzunkidea

III. Ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea

7. Programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa

8. Programa: Detekzioa eta arretoa

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Neurri integralen ingurukoa.

Botere publikoek eta administrazio maila ezberdinek jarraitu beharreko neurriak eta babes sistemak ezartzen ditu 1/2004 legeak.

1. artikulua. Legearen xedea.

1. Lege honen xedea da indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa.

2. Lege honen bidez babes-neurri osoak ezarri dira, eta neurri horien helburua da halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktimei babesa ematea.

3. Lege honek aipatu genero-indarkeriatzat ulertzen da indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere.



PRINTZIPIO GIDARIAK



Konpromisoa eta inplikazioa

Plana aurrera eramateko, ezinbestekoa da Eibarko Udalak konpromiso irmoa mantentzea. Hala, plana udalaren funtzionamenduan txertatu, hedapenean lagundu eta jarraipena eta ebaluazioak burutzeko, udaleko esparru guztiek eta agente guztiek, dagokien mailan eta eran lan egitea behar-beharrezkoa da.

Parte-hartzea

Azken urteetan udala eta hiriaren arteko gertutasuna lantzeko ahaleaginean aurrerapausoak eman dira Eibarren. Bide horretatik jarraituz, berdintasun plan hau aurrera eramateko ere, hiritarren gertutasuna eta parte-hartzea ezinbestekoa da. Izan ere, nekez burutu daiteke hiriarentzako plan bat, hiria bera kontuan hartu gabe, eta hiria bera inplikatu gabe.

Hiriko norbanakoen eta elkarte edo erakundeen parte hartzeaz gain, udaleko teknikari eta politikariena ere ezinbestekoa da.

Egokitasuna

Eibarko III. planaren ebaluazio ekarpenei jarraiki, egokitasuna printzipio gidari garrantzitsu bezala ezarri da. Plana hiriaren errealitatera egokitu beharko litzateke, hiriko egoera espezifikoari jarraituz, hiriko elkarten eta gizarte eragileen egoera aintzat hartuz, eta dauden baliabideei egokitua.

Aniztasuna

Eibar hiri anitza da. Sexu, jatorri, genero, kultura, erlijio, maila ekonomiko, adin edo bizitza eredu anitzak dituzten hiritarrez osatzen den hiria da. Hau izango da berdintasun plan honen abiapuntuetariko bat, eta gorago aipatzen genuen egokitasun horren ardatzetariko bat; hiritar guztien errealitatera egokituko den plana sortzea, eta irizpide bera jarraitzea plana kudeatzerakoan ere.


IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

Baliabideen egokitasuna

Plan bat ezin da aurrera eraman, horretarako beharrezko dituen baliabideak esleitzen ez bazaizkio. Era berean, planak berak kontuan izan beharko ditu hiriak eskaintzen dituen baliabideak zeintzuk diren. Hala, horien inguruko analisia eginda, baliabide horiek egonkortu eta berauei etekin handiena ateratzera joango gara, arlo guztien inplikazioa eta hauen arteko koordinazioa eta lankidetzaz sustatuz.

Erreferentzia diren dokumentu eta ildoetara egokitzea

Indarrean dauden legetara eta berdintasun plan autonomiko eta foraletara egokitzea: EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VI. Plana, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako II. Foru Plana (2012-2020), EAEko berdintasun legea (4/2005 legea), estatu mailako legeak eta nazioarteko hitzarmenak, besteak beste.



EGITURAK

Ebaluazio prozesuan zehar parte hartu zuten egiturak:



1.1. Talde eragilea

Berdintasun teknikariak, berdintasun zerbitzuko ardura duen zinegotziak eta laguntza teknika osaturiko taldea, zeinak prozesua diseinatu, koordinatu eta dinamizatuko duten.

Funtzioak:

- Informazioaren bilaketa
- Prozesuaren koordinazioa eta dinamizazioa
- Erabakiak hartzea
- Eraitzen sozializazioa

1.2. Arlo ezberdinetako teknikariak.

Planaren eragina izan duten arlo ezberdinetako ordezkariak egon ziren talde honetan.

Funtzioak:

- Planaren zirriborroa kontrastatzea

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

- Hobekuntza proposamenak egitea, IV. Planean barne hartuko diren eta bideragarriak izango diren planteamenduekin.

1.3. Hiriko emakume elkarteen parte-hartzea


Funtzioak:

- Datuak eta ideiak luzatzea prozesu guztian zehar
- Hiriko errealitateari egokituriko proposamenak bultzatzea
- Planaren zirriborroa kontrastatzea





METODOLOGIA



Eibarko Berdintasunerako III. Planaren ebaluazioa

2015 urtean, exekuziorako ezarritako denbora markoa beteta, Eibarko emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. planaren (2011-2014) ebaluazio faseari ekitea erabaki zen. Ebaluazio prozesu parte-hartzaile honen bidez, abian jarritako jarduera tresnek nola funtzionatu duten aztertu eta Eibarko emakumeen eta gizonen arteko III. Berdintasun planaren oinarria finkatzea zen helburua. Aurrerago zehaztasun handiagoz azaltzen den analisi honek, planak izandako jarraipena eta emandako emaitzak aztertzeaz gain, egoeraren inguruko hurbilpen txiki bat egin eta IV. Plan honetarako kontuan hartu beharreko hobekuntzen proposamena ematen du.

IV. Planaren zirriborroa kontrastea

Zirriborroa oinarri harturik, udal teknikari, emakume elkarte eta Emakunderekin, kontrastatu zen. Hala, zuzenketa eta hobekuntza proposamenak jaso ahal izan ziren.

Eibarko IV. Berdintasun Planaren eraketa

Aurreko fasean zehar jasotako ekarpen eta iradokizunak bildu ostean, aldaketak erantsi eta hala, dokumentu definitibo bat eratu ahal izan zen.



III. PLANAREN EBALUAZIOAREN EMAITZA NAGUSIAK

2011 urtetik 2014 urtera arteko indarraldia izan duen Eibarko III. Berdintasun Planak eman ditu fruituak bai udal barnean baita udaletik kanpo ere, eta hala frogatu ahal izan da haren gaineko ebaluazioan. Anbizio handiko proiektu honen barruan egin diren lanketen gaineko ebaluazioa egin ondoren, honakoak dira azaldutako emaitza nagusiak :

1. EIBARKO UDALARI DAGOZKION ONDORIOAK

III. Berdintasun Planaren ezagutzari eta berau betetzeari dagokionez, udaleko sail ezberdinak aztertzerakoan ezjakintasun maila handi bat azaltzen da, baita bertan bildutako ekintzak gehienak bete dituzten eta bete ez dituzten sailen artean desoreka bat ere. Berdintasunaren arloan zeharkakotasun falta Berdintasun Planaren ezarpena izugarri oztopatzen duen elementu erabakigarri bat dela baieztatu daiteke.

Noizbehinka, “zeharkakotasun” kontzeptua teorian onartzen dela baina ez dela praktikara eramaten dirudi. Berdintasun teknikariaren eginkizunen artean zalantzak argitzea, egiaztatzea edo sailtako teknikariari tresnak ematea dago, baina honek, saileko lanean genero perspektiba sartzearen konpromisoa hartu behar du eta ardura bereganatu behar du. Kasu batzuetan gai hau ez dago argi, eta Berdintasun Zerbitzuak berdintasunarekin erlazionatuta dauden zeregin guztiak bere gain hartu behar dituela auresuposatzen da.

Gainera, udaleko berdintasun politiken garapena ezin da soilik teknikariaren esku geratu, indarrean den berdintasun planeko ekintzak gauzatzea posible egiten duen konpromiso politiko egonkor bat exijitzen baitu.

Udal sailtako zuzendaritza ezberdinekin eta teknikariekin elkarrizketak egin ondoren, udalean euskararen ezarpenarekin gauzatutakoa jarraitu beharreko eredu bat izan beharko litzatekeela ikusten da. Euskara Sail independente bat egoteak zeharkakotasuna eta **Euskararen Sustapenerako Ekintza Planaren** betetzea errazten du.

Sail batzuek ez dituztela ardatz estrategiko guztiei dagozkien ekintzak lantzen ikusten da, eta hau da teknikariek berdintasun planean planteatzen diren erronken ikuspegi orokor bat ez izatearen arrazoietariko bat.

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

Honela, Berdintasunaren aldeko Gobernantza EAEn Emakume eta Gizonen Berdintasunerako azken Planetan jasotzen da, ez ardatz baten moduan, garrantzi berezi bat ematen zaion sarrerako atal baten moduan baizik. Hau, planteatzen diren neurriak instituzioen lanean genero perspektibaren eransketarako oinarria osatzen dutelako gertatzen da, baina gainera, derrigorrez betetzekoak dira Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeagatik behin betiko eskaerei erantzuten dielako, bai bere oinarri orokorretan bai bere artikuluen neurri ezberdinetan.

Beste alde batetik, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren ardatzean edo Gizarte Antolaketa Erantzunkidean inplikaturik ez dauden sailak egoteak, hurrengo berdintasun planaren metodologiaren planteamendua agian zalantzan jarri behar izatea dakar.

Berdintasun Zerbitzuaren eta III. Berdintasun Planean inplikaturik gainontzeko sailen arteko komunikazioa desberdina dela ikusten da. Halaber, komunikazio hori ematen denean ere, ez da era arin eta egonkor batean egiten. Formatu ezberdinetan saiatu izan arren, sailletako eta departamentuetako arduradunekin koordinazio marko egonkor bat planteatzeko orduan zailtasunak daude.

Emakume eta Gizonen Berdintasun arloan tresna oso garrantzitsu bat sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea da. Egindako ebaluazioaren arabera, aipaturiko tresna ez da sail eta departamentu ezberdinetan erabiltzen. Beste alde batetik, sexuaren arabera bereizitako datuak biltzen diren kasu gehienetan, ez da jakiten gerora nola erabili, ezta beraietatik zelako ondorioak atera daitezkeen ere, emakumeen eta gizonen egoerak berdintasunezkoak ez diren errealitateetan eragina izaten saiatzeko.

Sail batzuetatik beste batzuetara ere sentsibilizazio maila oso ezberdina da, eta baita sail bakoitzaren barruan ere, teknikari batzuek bere lanean genero perspektiba integratzeko orduan baliabide falta onartzen dutela eta horretarako formakuntza egin beharko lukeela uste duela, eta beste parte batek, berriz, formakuntza izatea baieztatzen duela eta behar hau ez duela nabaritzen adierazten baita.

Genero kontuei buruzko ezagutza gaiaren arabera aldatzen da. Orokorrean teknikariek badakite hizkuntzaren erabilpen ez sexista nola egin, baina, ez nola sartu genero perspektiba bere sailean edo plan estrategiko espezifiko batean. Teknikariek eskura duten prestakuntza-eskaera pertsonako hiru ikastarotara mugatzeak, pertsona gehienek beraien lanarekin zuzenean lotutako ikastaroak hautatzea, eta ez beste gai batzuekin lotutakoak, berdintasuna izan daitezkeen bezala, dakar.

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

2. EMAKUME ELKARTEEN ONDORIOAK



Emakume elkarte ezberdinen eta banakako bezala emakumeen ordezkariekin egindako kontraste bileraren ostean, emakume hauek premiazko zatit dituzten behar zehatzat identifikatu genituen.

Alde batetik, Andretxea eta dinamizatzaile bat edukitzea modu positiboan baloratzen dute. Hala ere, espazio fisikoari dagokionez, ez dela irisgarria eta erabiltzen duten elkarte kopuruarentzat txiki geratzen dela azpimarratzen dute. Elkarreetako kontu pribatuak ere landu ahal izateko erabilera anitzeko leku bat behar dela uste dute, gehienbat arazoak dituzten eta intimitatea behar duten emakumeei laguntza ematen dienen kasuan. Dauzkaten baliabideak urriak dira, eta zentroaren kokapena ere ez zaie egokia iruditzen. Beste alde batetik, dinamizatzailearen dedikazio orduak gutxiegi direla iruditzen zitzairen, eta eskaera hori kontuan harturik, 2015. urtearen amaieran, lanaldi osorako dinamizatzaile bat kontratatu zen Andretxearen arreta ordutegia horrela luzatuz.

Ahalduntze Eskolari dagokionez, oso modu positiboan baloratzen dute. Azpimarratzen duten bakarra, beraien jardura zabaltzeko aurrekontu handiago bat egon beharko litzatekeela da, zeren gaur egun erabiltzen diren liburuxkak oso eskasak baitira.

Beste alde batetik, Eibarko Udalarekin dagoen komunikazioari dagokionez, Berdintasun teknikariarekin daukaten harremanarekin oso pozik agertzen dira, ez ordea gainontzeko sailekin, bereziki kultur sailarekin. Beraien iritziz aipatutako sailarekin komunikazio bideak ez dira egokiak, eta daukaten sentsazioa, beraien azalpenak eta proposamenak emateko orduan beraien parte-hartzea ez dela errazten da, jaien antolakuntzan izan daitekeen moduan. Inplikazio handiagoa egotea gustatuko litzateke, adibidez, azaroaren 25a eta martxoaren 8a bezalako egun seinalatuen antolakuntzan.

Azkenik, Emakumearen Mahaitik egiten den lanarekin pozik daude, azken urteetan bultzada bat eman zaion tresna baliagarri bat iruditzen zaie, parte-hartzea elkarteen aldetik eskasa zela onartzen dutelako.

AZKEN GOMENDIOAK


- Berdintasun Zerbitzua Gizarte Zerbitzuen Saileko sail independente batean bihurtzea proposatu.

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

- Diru-laguntzen dekretuetan, lankidetzaz hitzarmenetan eta deialdietako oinarrietan edo kontratazio orrietan genero perspektiba txertatzen duten egitasmoak aintzat hartzea irizpide orokor bezala ezarri.

Berdintasunaren Aldeko Gobernantza Hobetzea: Hurrengo Berdintasun Planean sail bakoitzerako betetzea derrigorrezkoa duten neurriak bildu, eta hauetara, berauek betetzearen garrantzia ekarri.

- Zeharkakotasuna: Eibarko Udalaren egitura guztietan berdintasunaren aldeko lana segurtatzeko moduan, sail eta departamentu guztiek hurrengo berdintasun planaren ardatz estrategiko bakoitzean konpromisoak hartuko dituzten planteamendu bat egin.
- Udaleko sail ezberdinetako teknikariak hurrengo Berdintasun Planaren elaborazioan eta bere inplementazioan engaiatu:
 - Hurrengo Berdintasun Planarentzat sail ezberdinen konpromisotik abiatutako helburu eta ekintza errealak ezarri.
 - Berdintasun Planean inplikaturako sailtako teknikariaren koordinazio bilerak: egutegi bat ezarri eta deialdi formal bat egin. Honela, Berdintasun Planaren ezagutza hobeto bat, planean planteaturako ekintza ezberdinen ebaluazioa, jarraitasuna eta segimendua lortu ahal izango dira. Beste alde batetik, bilera hauek zalantza adierazteko, proposamenak egiteko eta sail ezberdinen artean praktika onak partekatzeko balio beharko lukete.
- Formakuntza: udaleko teknikarien formakuntza planean derrigorrezko izaera duten prestakuntza-ekintzak sartu.
- Sexuaren arabera bereizitako datuak: udal sail ezberdinen datuak biltzen dituzten programa informatikoetan sexu aldagaia sartu.
- Ebaluazio fitxak: Hurrengo Berdintasun Planean sartutako ekintza ezberdinak burutzeko arduraduna den teknikariari ebaluazio fitxa errazak eman. Horrela, Berdintasun Planaren ebaluazio globalerako balioko duten aipaturako ekintzen ebaluazio bat modu sistematikoan egitea lortuko da.



IV. BERDINTASUN PLANA: EGITURA ETA JARRAIBIDEAK

Aurrean aipaturiko guztia kontuan izanik, honako datozen horietan ageri diren ekintza multzoa proposatzen da, egitura eta helburu jakinen bueltan.

Egiturari dagokionez, EAeko VI. Berdintasun plana oinarri harturik, lau atal berezitu dira: Gobernantza, balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea, gizarte antolakuntza erantzunkidea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.

Atal bakoitzean zenbait helburu zehazten dira, eta helburu bakoitza aurrera eraman ahal izateko, ekintza multzo bat. Honakoak lirateke helburuak atalaren arabera banatuta:

Gobernantza

1. Udaleko berdintasun arloa babestu eta indartzea
2. Berdintasun planaren hedapena eta jarraipena egitea
3. Genero ikuspegia txertatzea udalaren eguneroko jardunean
4. Berdintasuna sustatzearen aldeko neurriak ezartzea kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan.
5. Komunikazio bideak hobetzea

I. Ardatza: Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea

1. Balioak aldatzea
2. Ahalduntze pertsonala laguntzea
3. Ahalduntze kolektiboa laguntzea
4. Ahalduntze soziala eta politikoa laguntzea

II. Ardatza: Gizarte antolakuntza erantzunkidea

1. Programa: Erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berriak
2. Programa: Kontziliazio erantzunkidea

III. Ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea

1. Programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa
2. Programa: Detekzioa eta arreta

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

GOBERNANTZA

Gobernantzaren atala osatzeko, administrazioaren lanaren arlo zehatzetan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko neurriak definitu dira. Honen bidez, politika publikoen garapena hobetu eta berrantolatu, eta berdintasun ikuspuntua zehar-lerroko estrategia bidez ezartzeko mekanismoak zehazten dira, egiazko berdintasuna lortzea helburu zentral gisa ezarritik.

Egun dauden ekimen eta baliabideak mantentzeaz gain, honakoak dira proposatzen diren helburu eta ekintzak.

G.1. Helburua: IV. Planaren edukia ezagutzera eman

EKINTZA	IV. Plana, onartu eta gero, Udalaren eta Andretxearen webguneetan eskuragarri dagoela jakinaraziko zaie udal teknikariei eta udalbatzari. Tokiko elkarteei ale bat bidaliko zaie euskarri informatikoan. Hiritarrei komunikabideen bitartez emango zaie Planaren edukien berri.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Informatika.			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Tokiko komunikabideak.			
ADIERAZLEAK	IV. Plana webgunean eskuragarri egotea. Udal teknikariei eta udalbatzari jakinaraztea. IV. Plana tokiko elkarteei bidaltzea euskarri informatikoan. IV. Planaren aurkezpen publikoa egitea komunikabideetan.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

G.2 Helburua: Berdintasun teknikariak IV. Planeko ekintzak ezartzeari ematen dion dedikazio-denborari eustea.

EKINTZA	Berdintasun teknikariak gaur egun ematen duen ordu-kopuru bera emango du planean jasota dauden jarduerak sustatzen eta jarduera horien jarraipena eta ebaluazioa egiten.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Antolaketa eta Langileria			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
ADIERAZLEAK	Berdintasun teknikariak IV. Planaren jarraipenean ematen duen lanaldiko ordu-kopuruari eustea.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

G.3 Helburua: Planean inplikaturaren diren saileko teknikariak berdintasunerako IV. Plana betetzeko koordinazio-egituretan engaiatzea.

EKINTZA	Planean inplikaturaren diren saileko teknikariak bilera-deialdia egingo zaie IV. Planak euren esparrurako proposatzen dituen jardueren betetze-maila balioetsi ditzaten. Bilera horren aurretik, lehenago prestatutako "Ekintzen betetze-mailari buruzko ebaluazio-fitxa" bidaliko die Berdintasun Sailak.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Saila, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Pegora Hiritarren Zerbitzurako Bulegoa, Informatika, Garapen Ekonomikoak, Enplegua eta Berrikuntza, Gizartekintza, Euskara, Kultura, Kirolak.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
ADIERAZLEAK	Ebaluazio-fitxa betetzea. Berdintasun Sailak deitutako bilera egitea.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

G.4 Helburua: Estatistikak eta azterlanak genero-perspektiba aintzat hartuta lantzea.

EKINTZA	Udalarekin harremanetan jartzen diren herritarren datuen erregistroetan, sexu aldagaia jasoko da.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Saila, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Pegora Hiritarren Zerbitzurako Bulegoa, Informatika, Garapen Ekonomikoak, Enplegua eta Berrikuntza, Gizartekintza, Euskara, Kultura, Kirolak			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
ADIERAZLEAK	Sexu aldagaia jasotzen duten erregistroak. Datu horien ustiaketa, txosten, memoria eta abarretan argitaratua, sexu aldagaia jasotzen duena.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

G.5 Helburua: Toki administrazioan berdintasuna aplikatze aldera, prestakuntzan parte hartzea.

EKINTZA	Urteroko Formakuntza Diagnostikoan, departamentuek, dagozkien esku-hartze eremu sektorialetan berdintasunari buruzko formakuntza espezifikoak duten ekintzak gauzatzea planteatuko dute			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Saila, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Pegora Hiritarren Zerbitzurako Bulegoa, Informatika, Garapen Ekonomikoak, Enplegua eta Berrikuntza, Gizartekintza, Euskara, Kultura, Kirolak			
ADIERAZLEAK	Prestakuntza-jarduera horietara gonbidatuta dauden udal-teknikariak, sexu aldagaiaren eta lanbide-kategoriaren arabera.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

EKINTZA	Antolaketa eta Langileria Sailari berdintasun formakuntza orduak, langileen formakuntzarako dauden orduen neurketa orokorrari begira, kontuan ez hartzea proposatzea. Horrela, interesatuta daudenak ikastaroak egin ahalko dituzte, bere lanposturako espezifikoak diren ikastaroak ez galtzeko.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Antolaketa eta langileria			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua.			
ADIERAZLEAK	Berdintasun prestakuntza-jardueretara joaten diren teknikarien kopurua handitzea.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

G.6 Helburua: Berdintasunaren aldeko lanari esleitutako aurrekontua handitzea, arian-arian.

EKINTZA	IV. Planaren indarraaldian, planeko programak, ekintzak eta, denbora pasatu ahala, emakume eta gizonen berdintasunaren aurrerakuntzarako interesgarri irizitako bestelako jarduerak gauzatzeko aurrekontua gutxinaka-gutxinaka igoko da.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
ADIERAZLEAK	IV. Plana egikaritzera esleitutako aurrekontua urteko. IV. Planean jasota ez dauden jarduerari aurre egiteko bestelako diru-baliabideak			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

G.7. Helburua: IV. Berdintasun Planean engaiatutako udaleko sail ezberdinen eta Berdintasun Sailaren artean koordinazio egonkor eta eraginkor bati eustea.

EKINTZA	Urte bakoitzean zehar bileren egutegiari eustea eta honetarako deialdi formal bat egitea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	IV. Berdintasun Planean engaiatutako udal sail ezberdinetako zuzendaritza/teknikariak.			
ADIERAZLEAK	Deitutako pertsonen derrigorrezko etortzea .			
URTEA	2016	2017	2018	2019

G.8 Helburua: Planean engaiatutako sailen urteroko plangintzan genero perspektiba zeharka txertatu.

EKINTZA	Sexu bien parte-hartze eta bisibilizazio orekatu bat sustatuz, proposamen kulturalaren plangintza egiteko orduan emakumeen eta gizonen egoera ezberdina kontuan hartzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Saila, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Pegora Hiritarren Zerbitzurako Bulegoa, Informatika, Garapen Ekonomikoak, Enplegua eta Berrikuntza, Gizartekintza, Euskara, Kultura, Kirolak			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Gizartekintza, Immigrazioa eta Berdintasun Zerbitzua			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Armagintza Museoa, Juan San Martin Liburutegia.			
ADIERAZLEAK	Sail bakoitzaren plangintzan emakumeen eta gizonen egoera ezberdina islatuta geratzea, baita desberdintasuna saihesteko neurriak ere.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

G.9. Helburua: Benetako berdintasuna sustatzeko komunikazio hobetu.

EKINTZA	Udaleko sail guztietako teknikariek irudi eta hizkuntza erabilpen ez sexista egingo dute.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Saila, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Pegora Hiritarren Zerbitzurako Bulegoa, Informatika, Garapen Ekonomikoak, Enplegua eta Berrikuntza, Gizartekintza, Euskara, Kultura, Kirolak			
ADIERAZLEAK	Eibarko Udaleko dokumentu guztietatik hizkuntza eta irudi sexistak ezabatzea			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

EKINTZA	Pertsonak, sexuaren arabera beste edozein baino gutxiago edo gehiago bezala, edo objektu sexual soil bezala, baita indarkeria justifikatzen, ezereztzen edo bultzatzen dutenak ere, eta bereziki, emakumeen aurkako indarkeria, aurkezten dituzten irudiak eta eduki mediatikoak kentzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Salla, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Pegora Hiritarren Zerbitzurako Bulegoa, Informatika, Garapen Ekonomikoak, Enplegua eta Berrikuntza, Gizartekintza, Euskara, Kultura, Kirolak			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
ADIERAZLEAK	Eibarko Udalak egiten duen edozein argitalpenetan irudi eta eduki sexista kentzea.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

EKINTZA	Udal web orrialdeari lotutako Andretxeraen web orrialde berri bat sortuko da			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Gizartekintza			
ADIERAZLEAK	Andretxerako web orrialde zehatz bat sortu Udal web orrialdean gune zehatz bat			
URTEA	2016	2017	2018	2019

EKINTZA	Gainontzeko udal zerbitzuek bezala, Andretxearen posta elektronikoak eibar.eus domeinua izango du.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua..			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Gizartekintza			
ADIERAZLEAK	Andretxearen posta elektronikoaren aldaketa			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

G. 10. Helburua: Genero kontzientzia bultzatzea eta emakumeen autonomiaren garapena sustatzea.

EKINTZA	Orain arte egin izan den bezala, Andretxearen funtzionamenduari eustea eta hobetzen jarraitzea, bere funtzionamendu zuzenerako baliabide materialak eta giza baliabideak emanez. Webgunea eguneratuta eustea eta hobetzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Gizartekintza Zerbitzua.			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Andretxearen parte hartzen duten elkarteek			
ADIERAZLEAK	Funtzionamenduaren ordutegia/urtero. Bere funtzionamendurako baliabide pertsonalak/urtero. Andretxeara irisgarritasuna hobetu. Webgunea eguneratu.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

**UDAL BAI ZARRAK
ONARTUA**

2016 EKU. 13

**APROBADO
POR EL PLENO MUNICIPAL**

1. Ardatza: BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko VI. Berdintasun planak azaltzen duenez, Balio-aldaketa eta emakumeen ahalduntzea batera lantzen diren bi kontzeptu dira; izan ere, emakumeen eta gizonen berdintasuna maila ezberdinetatik sustatzen duten erakunde guztien gomendioa izateaz gain, oso-oso lotuta daude.

Balioak aldatzeaz hitz egiten dugunean, eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko eredu batera lgarotzeaz ari gara. Balioak aldatu ezean, ezin da gizartea eraldatu. Balioek edozer gizarte-eredu iraunarazten eta justifikatzen dute, eta honenbestez, beharrezkoa da beste balio batzuk garatzea, beste printzipio filosofiko, etiko eta politiko batzuk garatzea, eta gizartea horietan oinarritzea.

Ahalduntzeak, bestalde, "botere eskuraketa" suposatzen du; hau da, emakumeek euren posizio politiko, ekonomiko eta soziala indartzea. Erabaki eta botere prozesuetan emakumeen parte-hartzea handitzea ahalbideratuko duen banakako eta taldeko kontzientzia pizteko prozesua da.

Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planak horrela azaltzen du Emakumeen ahalduntze eta balio aldatze ardatza: *Pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzeari deritzogu ahalduntzea. Beraz, emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egiterekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere.*

Honako ardatzak gizartearen eraldaketari erantzuten dio; eraldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalari hain zuzen. Hortik bere garrantzia.

Ardatz honek, lau programa biltzen ditu bere baitan: lehenengoa baloreen aldaketen gainekoa, eta beste hiruak jabekuntzaren kontzeptua jasotzen dute, maila indibidualean, kolektiboan eta sozialean. Aurreko guztia kontuan izanik, eta EAEko VI. Berdintasun planak proposatzen duen egitura berau jarraiturik, honakoak dira proposatzen diren helburu eta ekintzak:

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

I Ardatza. 1 Helburua: Emakumeen eta beraien ekarpenen gizarte onarpena handitu.

EKINTZA	Adierazpen artistiko eta kulturaletan: erakusketetan, kontzertuetan, zineman, dantzan eta antzerkian, hitzaldietan ... emakumeen eta gizonen presentzia orekatu bat bilatu. Andretxearen webgunean ekintza hauen berri eman.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Kultura Saila eta Euskara Saila			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua.			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Antzerki jardunaldiak. "Indalecio Ojanguren" argazki lehiaketa. "Asier Errasti" laburmetraien jaialdia.			
ADIERAZLEAK	Urteko adierazpen artistikoak. Lan ARTISTIKOA erakusten duten egileak. Andretxearen webgunearen jardueraren zabalpena.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

I Ardatza. 2. Helburua: Gizarte ez sexista bat sustatzen duten ekintza artistikoak eta kulturalak erakutsi.

EKINTZA	Erakusketa artistiko eta kulturaletan: antzerkian, kontzertuetan, zinema emanaldietan, hitzaldietan ... emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten edukiak, emakumezko eta gizonezko ez estereotipatuen erreferenteak erakutsiz, dauzkaten lan artistikoen zabalpena bilatuko da, martxoaren 8an, azaroaren 25ean eta ekainaren 28 nagusiki.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Kultura Saila eta Euskara Saila			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua.			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Herri elkarteak			
ADIERAZLEAK	Berdintasunaren aldeko edukiak dituzten urteroko adierazpenak. Jardueraren zabalpena /urtero. sexu aldagaiaren arabera parte-hartzen duten ikusleak / urtero			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

I Ardatza. 3. Helburua: Jai eremua emakumeen eta gizonen berdintasun gune bihurtu.

EKINTZA	Programatzen diren emanaldiei eta antolaketari, gehien bat ikusle gazteak joaten diren kontzertuei ... dagokienez, hiriko jaietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatu bat bilatzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Kultura Saila, Euskara Saila eta kirol Saila			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Jai Batzordea, hiriko emakume elkarteak			
ADIERAZLEAK	Jai Batzordean emakumeen eta gizonen presentzia. Emakumeen eta gizonen jarduerak. Jardueren zabalpena.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

I Ardatza. 4. Helburua: Behar pertsonaletara eta bizitza estilora egokitutako elikadura orekatuaren, jarduera fisiko pozgarriaren, eta ,besteak beste, arrisku jarrerak murriztearen bidez, bere burua zaintzeko ohitura duten neskatilen, emakume gazte eta helduen kopurua handitzea.

EKINTZA	Kirol-baliabideak eskuratzen dituzten emakumeen kopurua eta horien gogobetetze maila hobetzea, egoera eta behar-aniztasuna aintzat hartuta.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Kirol Saila eta Euskara Saila			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Kirol eta euskara eremuko elkarteak.			
ADIERAZLEAK	Kirol-instalazioak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua handitzea. Kirol-ikastaroetan inskribatzen diren emakumeen kopurua handitzea. Kirol-praktikari jarraipena emateko aukera. Kirol-eskaintzarekin parte-hartzaileen poztasun maila.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

EKINTZA	2015ean egindako Kirol Diagnostikotik jasotako emaitzak Kontuan hartuz, kirol ekintzen plangintza egiteko orduan genero perspektiba txertatzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Kirol Saila eta Euskara Saila.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Kirol eta Euskara elkarteak			
	Kirol-instalazioak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua handitzea.			

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

ADIERAZLEAK	Kirol-ikastaroetan inskribatzen diren emakumeen kopurua handitzea. Kirol-praktikari jarraipena emateko aukera. Kirol-eskaintzarekin parte-hartzaileen poztasun maila.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

I Ardatza. 5. Helburua: Genero kontzientzia bultzatzea eta emakumeen autonomiaren garapena sustatzea.

EKINTZA	Martxoaren 8a eta azaroaren 25a dela eta liburutegian emakumeen egoerari buruzko edo berdintasunaren aldeko liburuak edo ikus-entzunezko materiala ikusgai jartzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Liburutegia			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Andretxea eta Berdintasun Zerbitzua			
ADIERAZLEAK	Jardueraren zabalpena /urtero. Andretxearen webgunearen jarduera zabaltzea/urtero.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

I Ardatza. 6. Helburura: Emakumeen autoestimua konpontzen eta garatzen laguntzea.

EKINTZA	Orain arte egin izan den bezala Eibarko emakumeei Ahduntze Eskolaren bidez formakuntza programa eskaintzen jarraitzea. Era askotako ikastaroen eskaintza sustatuko da, eta hauen publizitate zabala egingo da.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Saila			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Gipuzkoako Ahduntze Eskolen Sarea.			
ADIERAZLEAK	Formakuntza eskaintza/urtero. Ikastaroak zabaldu /urtero. Ikasleria /urtero. Parte-hartzaileen poztasun maila.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

I Ardatza 7. Helburura: Aniztasun sentimentaletik eta sexualetik, harreman eta jokabide afektibo-sexualak beren nahi eta interesetara egokitzen dituzten emakumezko gazteen eta helduen kopurua handitzea.

EKINTZA	Orain arte egin den bezala hiriko ikastetxeei, eta heziketa sexualaren programa heziketa eremuan lantzen duten aisialdirako taldeak bezalako beste kolektibo batzuei eskaintzen jarraitzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Aisialdirako erakundeak eta ikastetxeak.			
ADIERAZLEAK	Programan parte-hartzen duten zentroak eta kolektiboak/urtero. Programaren ebaluazioak/urtero.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

I Ardatza 8. Helburua: Garraio eta ekipamendu publikoaren estaldurarekin pozik dauden emakumeen kopurua handitzea, talde eta behar-aniztasuna aintzat hartuta.

EKINTZA	Hiriko emakumeen lan-bizitza, familia-bizitza eta aisiaren kontziliazioa errazten dituen baliabideei buruzko diagnostiko bat egitea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Kultura Saila, Euskara Saila, Gizartekintza Saila, Hirigintza Saila.			
ADIERAZLEAK	Diagnostikoa egin			
URTEA	2016	2017	2018	2019

I Ardatza 9. Helburura: Bizitzaren hainbat arlori dagokienez (osasuna, zainketa, lana, prestakuntza eta aisia) erabakiak beren nahien, irizpideen, interesen eta beharren arabera hartzen dituzten emakumeen kopurua handitzea.

EKINTZA	Emakumeen eskubideei buruzko informazio eta sentsibilizazio ekintzak, osasunaren, lanaren eta formazioaren arloan instituzioek eskaintzen dituzten baliabideei buruzkoak eta beraietara heltzea ere sustatzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Gizarekintza Salla eta Immigrazio Zerbitzua. Pegora			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua.			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Emakume elkartek.			
ADIERAZLEAK	Sentsibilizazio eta informazio ekintzen kopurua. Emakume parte-hartzaileen kopurua.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

II. Ardatza: GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

Gizartearen antolatzeko era tradizionalak, espazioen eta egin-beharren banaketa ezartzen du, sexuaren arabera antolatuta. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planak azaltzen duenez. Lanaren sexuaren araberako banaketan oinarritutako gizarte antolaketak ezaugarri hauek ditu:

- Sostenguaren arloan, ekoizpen arloan eta arlo publikoan batez ere maskulinoak eta gizonenak diren harreman, rol eta balioak daude.
- Zaintzaren, ugalketaren eta eremu pribatuan bereziki femeninoak eta emakumeenak diren harreman, rol eta balioak daude.

Azken urteetan gizartean eremu honetan aurrerapausoak egin direla igartzen den arren, asko dago egiteko. Emakumeak lan merkatuan sartzeak, prestakuntza maila altuak ... espazio publikoa irauli du aurreko mendean, oraindik ere eremu honetan asko badago ere egiteko; emakumeen lanaren prekaritatea, segregazio horizontal eta bertikala... Alabaina, espazio pribatuaren kasuan ez dira aldaketak erritmo berean eman eta ez dira ematen ari.

Beste eredu batzuk proposatu eta eraiki beharra dago emakumeen eta gizonen arteko harremanetarako eta espazioaren eta denboraren erabilerrarako, eta jakina, lana eta mundua sexuaren arabera bereizteak oinarri dituen gizarte-balioak sakonean eta egituretan eraldatzea.

Horretarako, ezinbestekoa da bi espazioak balioetsi eta hori lortzera bideratutako proposamenak egituratzen eta sustatzen jarraitu beharra.

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planak, bi programa proposatzen ditu ildo honen baitan: Erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berrien gainekoa bata, eta kontziliazio erantzunkidearen gainekoa bestea.

Honakoak dira proposatzen diren helburu eta ekintzak:

II. Ardatza 1 Helburua: Eguneroko bizimoduko jarduerak egiteko biztanleek joan-etorrietan ematen duten denbora murriztea.

EKINTZA	Hirigintza eta garraiobideen antolaketa egitasmoetan lan-bizitzaren, familia-bizitzaren eta bizitza pertsonalaren eta pertsonen autonomiaren kontziliazioari dagokionez, dakartzan erraztasunak edo zailtasunak kontuan hartzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Hirigintza Saila, Obrak eta Zerbitzuak.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Hiriko elkarteak.			
ADIERAZLEAK	Hartzen diren garraiobideen hirigintza eta antolaketa neurriak, eta pertsonen segurtasunari eta kontziliazioari dagokionez bere eragina kontuan hartzen dutenak.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

II. Ardatz. 2. Helburua: Mendetasun-egoeran dauden pertsoneri arreta emateko zerbitzu soziokomunitarioen ordutegien eta estalduraren mailagatasuna areagotzea, langileen kontziliazio erantzukidea bermatuta.

EKINTZA	Funtsezko zerbitzu soziokomunitarioen ordutegiak egokitzeko baliabideei buruz Diagnostikotik ateratako ondorioak kontuan hartzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Kultura Saila, Euskara Saila, Kirol Saila, Gizartekintza Saila, Pegora.			
ADIERAZLEAK	Bereziki garrantzitsuak den zerbitzuren baten ordutegia aldatzea. Erabiltzaileen poztasun maila.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

II. Ardatz. 3. Helburua: Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea.

EKINTZA	Berdintasunaren inguruan gizonezkoekin sentsibilizazio lana burutuko da erakusketen, tailerren, hitzaldien, antzezlanen ... bitartez			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Kultura Saila, Euskara Saila, Gizartekintza Saila,			
ADIERAZLEAK	Ekintzen kopurua Parte hartzaileen kopurua Parte-hartzaileen poztasun maila.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

UDAL BAI ZARRAK
ONARTUA
2015 EKA: 13
APROBADO
POR EL PLENO MUNICIPAL

EKINTZA	Gizonezkoei erantzukidetasunari buruzko tailerrak eskainiko die			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Kultura Saila, Euskara Saila, Gizartekintza Saila,			
ADIERAZLEAK	Parte hartzaileen kopurua Parte-hartzaileen poztasun maila.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

3. Ardatza: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki, hau jotzen da emakumeen aurkako indarkeriatzat: *“sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”*.

Programa honen helburuak bi adar nagusitan banatzen dira. Alde batetik Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko prebentzio eta sentsibilizazioa, eta bestetik indarkeria kasuen detekzioan eta arretan aurrera pausuak emateko bideak ezartzea.

Prebentzioari eta sentsibilizazioari dagokionez, EAEko VI. Berdintasun planean zehazten den bezala, emakumeen aurkako indarkeria oinarritzen eta iraunarazten duten balioak aldatzen laguntzea da helburu nagusia. Emakumeen aurkako indarkeriaren forma ezberdinak eta jatorria bistaratu, indarkeria mota honen gainean egon daitezkeen aurreiritzi eta uste okerrak ezabatu eta berau iraunarazten duen sistema errotik ezabatzeko neurriak proposatzea.

Emakumeen kontrako indarkeriaz sentsibilizatzea eta hori prebenitzea funtsezko lan-arloa da. Baina, aurretik egindako analisia aintzat hartuta, beharrezkoa da hainbat espaziotan zehaztea, eta esku-hartzeak pertsona-talde ezberdinetara egokitzea.

Gainera, azken urteetan, emakumeen kontrako indarkeria-modu berriak identifikatu dira, eta beharrezkoa da horietan ere berriaz esku hartzea.

Hala, bigarren programan, indarkeriaren detekzioan eta harretan sakonduko da. Indarkeria mota ezberdinak identifikatu, eta horren aurrean Eibarko udalak ezar ditzakeen neurrien gaineko lanketa bideratzea da plan honen egitekoetariko bat.

EAEko VI. Berdintasun planeko proposamenean oinarriturik, honakoak dira proposatzen diren helburu eta ekintzak:

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

III. Ardatza 1 Helburura: "Eibar Hiri Debekatua Egitasmoan" bildutako gomendioak jarraitu.

EKINTZA	Emakumeen segurtasunari buruz Eibarko emakumeek egin dituzten ekarpenak kontuan hartzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Hirigintza Salla, Obrak eta Zerbitzuak.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
ADIERAZLEAK	Egiten diren hirigintza lanak/urtero. "Eibar Hiri Debekatua Egitasmoan" bildutako ekarpenak kontuan hartzen diren hirigintza lanak.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

III. Ardatza. 2. Helburua: Eibarko Udalak zabaltzen dituen eduki guztietatik edozein bereizketa sexista ezabatu

EKINTZA	Pertsonak, sexuaren arabera beste edozein baino gutxiago edo gehiago bezala, edo objektu sexual soil bezala, baita indarkeria justifikatzen, ezerezten edo bultzatzen dutenak ere, eta bereziki, emakumeen aurkako indarkeria, aurkezten dituzten irudiak eta eduki mediatikoak kentzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Alkatetza, Idazkaritza, Antolaketa eta Langileria, Ekonomia Salla, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Pegora Hiritarren Zerbitzurako Bulegoa, Informatika, Garapen Ekonomikoak, Enplegua eta Berrikuntza, Gizartekintza, Euskara, Kultura, Kirolak			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Berdintasun Zerbitzua			
ADIERAZLEAK	Eibarko Udalak egiten duen edozein argitalpenetan irudi eta eduki sexista kentzea.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

III. Ardatza 3. Helburua: Emakumeen aurkako indarkeria motei eta horiek desberdintasunarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa (indarkeria sinbolikoa)

EKINTZA	Hiriko elkarte guztiei indarkeria sinbolikoari buruzko tailer bat eskaintzea.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua.			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Andretxea			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Elkarteak			
ADIERAZLEAK	Egindako tailerren kopurua. Parte-hartzaileen kopurua.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

III. Ardatza 4. Helburua: Indarkeria sexual eta etxeke tratu txarren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko, instituzioen arteko tokiko jarduera eta koordinazio Protokoloa ezartzea.

EKINTZA	Genero indarkeriaren aurkako jarduketa protokoloaren helburua gauzatuko da eta propio adierazitako tresnetan oinarrituta helburua bete dadin ematen dituen jarraibideak burutuko dira.			
EKINTZAREN ARDURA DUTEN EGITURAK	Berdintasun Zerbitzua			
BARNEKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Oinarrizko Zerbitzu Sozialak, Udaltzaingoa, Udal Korporazioa eta koordinazio mahai biak.			
KANPOKO EGITURA LAGUNTZAILEA	Ertzaintzaren komisaldegia, Eibarko emakume elkarteak, Osasun zentroak, Osasun Mentalaren Zentroa, heziketa komunitatea.			
ADIERAZLEAK	Egiten diren bilerak eta hauetara joaten diren pertsonak/urtero. Saioen edukia.			
URTEA	2016	2017	2018	2019

IV. PLANAREN AURREKONTUA

	2016	2017	2018	2019
Berdintasun Sailaren ekintza ezberdinak	61.100€	61.100€	61.100€	61.100€
Berdintasuna bultzatzen duten elkarteentzako diru-laguntzak	10.000€	10.000€	10.000€	10.000€
Berdintasuna aztergai dituzten ikerketak	9000€	9000€	9000€	9000€
Berdintasun arloan formakuntza	3000€	3000€	3000€	3000€
Babes pisuaren gastuak	2000€	2000€	2000€	2000€
Giza hezitzaile zerbitzuak emakumearen pisuan	412€	412€	412€	412€
GUZTIRA	85.512€	85.512€	85.512€	85.512€



PLANA BULTZATZEKO ETA KOORDINATZEKO EGITURAK

Berdintasun Planean dauden helburuak eta ekintzak bultzatu, jarraipena eman eta ebaluatzeko

beharrezkoa izango da hurrengo egiturak sortzea eta finkatzea:

1. Berdintasun Zerbitzua
2. Sailen arteko egitura politikoa
3. Sailen arteko egitura teknikoa
4. Berdintasun Kontseilua/Berdintasun Foroa

1. Berdintasun Saila

Langile egokiez osatutakoa -kopuruari eta trebakuntzari dagokionez-, udalerraren neurrira egokitua eta egiten den lan-kopurura egokitua. Hau da, berdintasunaren unitatea, berdintasun zerbitzua edo

berdintasuneko eragilea finkatu beharra dago, hartarako ardura duen zinegotziaren zuzendaritzapean edo arloko zuzendariarenean.

Parte-hartzaileak

Berdintasun teknikaria

Berdintasun zinegotzia.

Funtzioak

- Berdintasun Planaren ezarpenerako beharrezkoak diren zeregin guztiak koordinatu.
- Planean ezarritako ekintza eta helburu zehatzak garatu.

Langileak:

- Berdintasun teknikaria;
Ikasketak: Gizarte Langintzako Eskolako graduatua EHU Unibertsitatea; Emakume eta gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterra, EHU Unibertsitatea.


IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

Dedikazioa: lanaldi osoa; lanaldiaren %80 berdintasun arloan eta %20a emakumeentzako arreta espezifikoa.

Andreetxearen dinamizatzailea:

Ikasketak: Soziologian lizentziatu, Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra

Dedikazioa: lanaldi osoa



2. Sailen arteko egitura politikoa

Ardura politikoa eta erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna duten pertsoez osatua egongo da, udalaren arlo guztietako eta alderdi guztietako ordezkari politikoekin.

Parte-hartzaileak

Aikatea

Arlo desberdinetako ordezkari politikoak

Funtzioak

- Udalaren esparru guztietan garatzen diren berdintasun-politika erabakiak koordinatu.
- Berdintasunaren aldeko inplikazio politikoa erraztu eta sustatu, informazio egokia emanez.

3. Sailen arteko egitura teknikoa

Berdintasun-neurriak garatzen dituzten udaleko arlo edo sail desberdinetako eta zeharkakoetako pertsoez osatua.

Parte-hartzaileak

Udaleko arlo desberdinetako teknikariek osatuko da.

Funtzioak

- Sail bakoitzean berdintasunerako neurriak diseinatu, ezarri eta balioesteko lanak koordinatu.
- Hobekuntzak proposatu, aldaketak, planaren malgutasunerako irizpideak, e.a.

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA



4. Instituzioen arteko koordinazio egitura.

Parte-hartzaileak

- Udaleko berdintasun teknikaria
- Andretxearen dinamizatzaila

Funtzioak

- Berdintasunaren arteko erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa ahalbidetu.
- Berdintasunaren aldeko lana helburua dituzten udalazgainen organoetan parte hartu: Berdinsarea (Eudel), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea, Debabarrenako Berdintasun Foroa, Gipuzkoako Ahalduentze Eskolak, EAEko Emakume Etxeen Sarea.

5. Emakume Mahaia

Berdintasun planaren ezarpenean, jarraipenean eta ebaluaketan beharrezkoa da Eibarko emakumeen edota herritarren parte-hartzea bermatu eta bideratuko duen egitura sortzea.

Parte-hartzaileak

Lehendakaria: Berdintasun Saileko zinegotzia

Berdintasun Zerbitzuko teknikaria


Emakume taldeetako ordezkariak

Elkarte batean ez dauden emakumeak

Andretxearen dinamizatzaila

Funtzioak

- Berdintasun Planaren ezarpenean proposamenak egin.
- Berdintasun Planaren jarraipena, kontrola eta balioespena egin.
- Berdintasun Zerbitzuari aholkularitza eman.
- Planaren ezarpenaren jarraipenean parte hartu.
- Iritziak eta analisirako gaitasuna sortu.



EBALUAZIOA

Ebaluaketa Berdintasun Planaren oinarritzko prozesua da, bai proposatutako ekintzen betetze maila, bai jarritako helburuekiko berauen eragina neurtzea ahalbidetzen duelako.

Ebaluatze prozesua errazteko asmoz, adierazle multzo bat sortu da, izaera kuantitatibo eta kualitatiboa duena, planean proposatutako ekintza bakoitzeko. Adierazle hauek ekintzaren betetze maila ez ezik parte hartzen duen errealitatean daukan eragina ere neurtuko lukete.

Izaera finalista duen ekintza bakoitzaren bukaeran edo urte bakoitzaren amaieran, ekintzek izaera jarraitua dutenean, ebaluazio bat egin beharko da, aipatutako adierazleak kontuan izateaz gain hurrengo alde hauek ere barne hartuko dituen:

A. KOKAPENA ETA EKINTZAREN DESKRIBAPENA :

- Arloa
- Ardatza
- Helburua

B. EKINTZAREKIN LOTUTAKO OINARRIZKO ELEMENTUAK

- Deskribapena (fasetako garapena, erabilitako tresnak ...)
- Sail eta pertsona arduradura
- Jardueraren izaera (hasiera eta bukaera duen adierazi, edo urtean zehar garatzen den. Urtero edo aurten bakarrik):
 - Amaitze/Jarraituko du
 - Urtero/Aurten soilik
- Ekintzaren betetze maila
 - Osoa/Zatika/Ezer ez
- Ekintzaren hasierako hilabetea eta aurreikusitako iraupena/ Hasierako hilabetea eta izan duen iraupen erreala
- Aurreikusitako aurrekontua/Aurrekontu erreala
- Espero ziren emaitzak/Lortu diren emaitzak (proposatutako adierazleak erabiliko dira)
- Ekintzak ezartzeko zailtasunak

IV. BERDINTASUN PLANA. EIBARKO UDALA

Ekintzaren ardura duten arlo bakoitzeko teknikariek informazioa jasoko dute ebaluazio fitxa betetzeko.

Urte bakoitzeko amaieran ekarpenak jasotzeko eta ekintzen balorazio orokorra egiteko helburuarekin, Berdintasun Planaren inplikazioa duten arloko pertsonekin eta berdintasun teknikariarekin, ebaluazio bilera bat antolatuko da.

Plana indarrean egongo den azken urtean, planaren inplikazioa duten arloko teknikariek eta berdintasun teknikariarekin, hutsuneak, praktika onak eta hurrengo berdintasun planerako ekarpenak jasotzeko helburuarekin, egiaztapeneko ebaluaketa orokor bat egingo da.

Eibar, 2016ko ekaina.

